

ARAUTEGIA

GIMNASTIKA ERRITMIKOA 2017

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Gimnasiako Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XXXVI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu, 2017ko maiatzaren 27an Gasteizko Abetxukoko Udal kiroldegian. Hona hemen arautegia:

1. PARTAIDETZA:

Infantil, 2003 eta 2004 urteetan jaioetako neska mutilak eta alebin, 2005 eta 2006 urteetan jaioetako neska mutilak.

2. JOKATZEKO MODUA

➤ Banakako lehiaketa:

Alebinak: ariketa bat eskuak libre direla eta beste bat uztaiarekin.

Infantilak: uztaiarekin eta pilotarekin ariketa bana.

➤ Taldeakako lehiaketa

Alebinak: ariketa bat bost edo sei pilotekin.

Infantilak: ariketa bat bost edo sei uztaiekin.

➤ Taldeen osaera

Lurralde bakoitzak alebin mailan hiru talde aurkez ditzake, bost edo sei gimnasta titular eta ordezkari batez osatuak, eta infantil mailan ere beste hiru talde, bost edo sei gimnastaz eta ordezkari batez osatuak. Horretaz gain, talde bakoitzeko ordezkari edo entrenatzaile bat ere egongo da.

Banakako modalitatean, lurralde bakoitzak, kategoria bakoitzeko bosna gimnasta aurkez ditzake gehienez eta ordezkari edo entrenatzaile bana.

Taldeakako lehiaketan kirolari berdinak ezingo du bi talde ezberdinetan parte hartu.

- Ariketa ezberdinen balio teknikoak Gimnasia Erritmikoko Euskal Federaziok argitaratutako arautegi eskolarraren arabera izango dira.
- Gimnasta bakoitzaren entrenatzaileak musika cd bat eraman beharko du, bertan erabilitako musika aurkeztutakoarena baino beste formatu batean izan beharko du erreprodukzioarekin arazoak ekiditeko.

3. SARIAK

Ondorengo sariak emango dira:

- Taldekako lehiaketan:
Domina bana lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutakoei kategoriako.
- Banakako lehiaketan:
Domina bana lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutakoei kategoriako.
Aparatu bakoitzeko lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutakoei.

4. EZBEHARREN AURREAN.

Lesio edo ezbeharrik sortu ezker nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

5. AZKEN OHARRA

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontuak argitzeko, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a) 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b) Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretua.



EUSKADIKO XXXVI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK
XXXVI JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



- d) Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2017ko urtarrilaren 10eko AGINDUA, 2017ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVI. edizioaren deialdia egiteko dena
- e) Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendariak, 2017ko otsailaren 2ko EBAZPENA, 2017ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVI. edizioaren epaile bakarra izendatzen dena.
- f) Gimnasiako Euskal Federazioaren Arautegiak agindutakoa.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkerro, gaztelaniazkoa lehentasuna izango du.